




TXOKO

KUTTUNAK

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

[2023/03]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA

CONSERVAS
YURRITA
— 1867 —
GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN
ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren ohiko ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera 10:00-14:00.



ASTE SANTUA
Apirilak 8 10:00-14:00



Online salmenta:
www.yurritagastronomika.com



sarean edota dendan erosteagatik

% 20eko deskontua

kupoi hau aurkeztuz

ZUZENeko SALMENTAN

50€tik gorako erosketetan
apirilean zehar erabilgarri.

ONLINE SALMENTAN

50€tik gorako erosketetan
ondorengo kupoia sartuz:
HITZALAGUN

Aurkibidea

YURRITA (Mutriku)	2
MUTRIKU	4
BERRIATUA	5
ETXEBARRIA	6
MARKINA-XEMEIN	7
ZIORTZA-BOLIBAR	8
AULESTI	9
MUNITIBAR	10
LEA IBARRA	11
ISPASTER	12
ABENTURA PARK (MENDEXA)	13
LEKEITIO	14
LEAKTIBAI (MENDEXA)	15
ONDARROA	16-17
AJANGIZ	18
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	19
NABARNIZ	20
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	21
AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	21
FORUA	22
URDAIBAI EXPERIENCE	23
EKOBIDEAK (Leioa)	23
MURUETA	24
KAMIÑOKO (Muruetan)	25
AMUNATEGI (Busturia)	25
ARRATZU	26
ARROLAGUNE (Arratzu)	27
OGOÑOPE (Ibarrangelu)	27
GAUTEGIZ ARTEAGA	28
HEMINGWAY (Sukarrieta)	29
IZKIRA URDAIBAI	29
BASONDO (Kortezubi)	30
URDAILIFE (Bermeo)	31
UR URDAIBAI UR LEKEITIO	32



Leaktibai

Zer kontatu izango duzu

Itsasoa. Hondartzak. Pasealekuak. Itsaslabarrak. Kostaldeak eskaintzen duen zeruertza amaigabea. Lurra. Mendiak. Ibilbideak. Errekastoak. Barrualdeak azaleratzen dituen paisaia ikusgarriak. Natura, bete-betean. Museoak. Bisita gidatuak. Ikastaroak. Kirol jarduerak. Babeslekuak. Abentura parkeak. Esperientziak. Kultur ondarean eta kirolean barneratzeko hamaika aukera aberasgarri.

Hori eta askoz gehiago eskaintzen dute Lea-Artibaik, Mutriku eta Busturialdeak. Familian zein lagunartean, giro euskaldunean barneratzeko hamaika aukera; gastronomiaz gozatzeko eta atsedean hartzeko leku atseginak, etxean bezala sentiaraziko dizutenak.

Gurera bazatoz, zer kontatu izango duzu!

**TXOKO
KUTTUNAK**
TURISMO GIDA
[2023/03]

Bizkaia
Argitalpen honetarako
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**
Lege gordailua: **BI-2906-03** · ISSN: **2173-7118**
Helbidea: **Arretxinaga Etorb., 1 · MARKINA-XEMEIN** · 94-684 44 36
Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus**
www.lea-artibaialdeamutriku.hitza.eus
Testuak eta publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**



bai
euskara



HITZA

Saturrarán



Naia Arantzamendi



**Marije
Ituarte Salegi**
(Herritarra)

«Suari begiratzea bezala da Saturrarani begiratzea, ez zara inoiz nekatzen»

Tokiak denboraren poderioz aldatu egiten dira, baina badago lekuren bat beti tinko jarraitzen duena, eta horien artean dago Mutriku Saturrarán hondartzako haitza. Etxean sentiarazten zaituen lekua. Hamaika oroitzapen eta bizipenen testigu izateko aukera izan du, eta Marije Ituarte bere sentitzen duen leku berezia da: «Neure neure sentitzen dudán lekua da, kanpoan egon ostean, Saturrarán ikusi eta 'etxean nago' esatea elkarrekin doaz».

Etxe ondoan izan duen lekua izanik, udan base-rrian lanean aritu ostean eguzkia makaltzen hasten zenean bainua hartzeko une aproposa izaten zela

aitortzen du: «Etxekoekin une gozo bat pasatzeko unea». Lotura zuzena izan du Saturraránek, eta baita sokatira taldearekin ere. Herri kirolak, natura eta itsasoa uztartuz egoitza leku ezin hobean dagoela esaterik badago, eta hamaika ordu igaro ditu bertan.


Mutrikuko altxorra

Energia berezia duen lekua da, Satur eta Aranen kondaira ibili da betidanik haitzaren inguruan, eta behin eta berriz kontatzen du Ituarte: «Haurrei istorio hori kontatzea gustuko dut». Historia duen lekua izanik, hamaika bizipen eta istorio jaso ditu haitzak. Hitz egingo balu, ikusi duen historiako pasarte beltzetatik familiarteko ilunabar goxoetarainoko uneak kontatzeko aukera izango luke. Hori dela eta, Ituarerentzat behin eta berriz begiratu daitekeen altxorra da: «Suari begiratzea bezala da Saturrarani begira egotea, ez zara inoiz nekatzen».



TURISMO BULEGOA:
Txurruka Plaza, z/g
943-60 33 78
turismo@mutriku.net
www.mutriku.eus

Berriatua



Asier Alkorta

Berriatuak Urepelegaz askotariko loturak dituela eta, Urepel plaza herriko txoko kuttuna dela uste du Ander Txakartegi abenturazaleak. «Berriatua oso lotuta dago Urepeleko urarekin. Urepelek pisu asko dauka herrian, esanahi handia dauka. Eta, ondorioz, izen horrekin hainbat talde, jarduera edota establezimendu daude herrian. Horrez gain, Urepel plaza plaza gozoa dela deritzot, berezia».

Ura bizia dela eta bide horretatik bizitasuna ematen duela gaineratu du abenturazale berriatuarrak. «Niretzako uraren etorrerak zerbait berezia irudikatzen du. Nahiz eta plaza horretan umeentzako jolasgunerik ez dagoen, umeak beti daude bertan jolasean. Plaza horrek askotariko jolasak egiteko aukera ematen du. Umeak plazan bueltaka eta urarekin jolasean ikusteak ingurua bizitzen du».

Mikel Lertxundi eskultore berriatuarraren eskulturak ere plazan bertan daude, eta horiek ere gunea asko janzten dutela dio Txakartegik.

Iturburua

Iturburua ere plazan bertan dagoela eta udan zein neguan Urepelen beti dagoela ura dio. «Edozein urte sasotan Urepelen beti dago ura, iturburuan beti dago ur emaria. Kanpotik ere jende asko etorzen da ur horren bila. Gainera, gero eta ur gutxiago



Ander Txakartegi
Basterretxea
(Abenturazalea)

«Urepel plaza plaza gozoa da, berezia. Jolaserako aukera ematen du»

dagoen garai hauetan, Urepeleko ura balioan jarri behar da». Urepeleko urak, gainera, berezitasun asko dituela dio. «Ur ona da, eta, edateko balio izateaz gain, beste hainbat ezaugarri ditu. Adibidez, tentsioa jaisteko ona da».



BERRIATUA
ELIZATEKO
UDALA

Herriko plaza, 1
94-613 70 30
Faxa: 94-613 70 27
udala@berriatua.org
www.berriatua.org

Etxebarría

Presa eta futbitoko kantxa



Eñaut Gorosabel
[Futbol jokalaria]

**«Bero bazegoen,
beti amaitzen genuen
errekan, presan salto
egiten»**

Kiolari estu-estu lotuta dago Eñaut Gorosabelen bizitza. Abuztuaz geroztik, abentura berri batean murgilduta dabil: Italian, ASD Tricarico Pozzo Di Sicar futbol taldean ari da jokatzeko, etxetik 2.031 kilometrora.

Oroitzapenik politenak ere kirolari eta lagunei lotutakoak ditu. Sekula ahazten ez diren horiek. Horregatik, ez du zalantzarik izan herriko txororik kuttunena aukeratzeko. Elkarren ondoan dauden bi leku hautatu ditu: Ibaiondo auzoan dauden futbitoko kantxa eta haren atzealdean dagoen presa.

Umetan, etxean minutu bat ere igarotzen ez zuen horietakoa zen Gorosabel. Bizikleta, baloia edota pilota... beti etxetik kanpo ibiltzen zen. «Escola amaitu, etxera joan, ogitartekoa hartu, motxila utzi eta kalera joaten ginen. Plana beti izaten zen bizikletekin aldapak jaisten, futbiton, frontoian pilotan... Futboleko asko jolasten genuen, eta baloia errekarera joaten zenean, bero bazegoen, beti amaitzen genuen errekan, presan salto egiten, ea zeinek saltorik handiena egin», dio irribarrez. Neguan beste komeria batzuk izaten zituzten baloia berreskuratzeko. «Harriz betetako uhartetxo bat zegoen. Harriak hartzen genituen bertatik, baloia izkinara bideratu eta eskaileretatik hartzeko». Inguruan zeuden kanaberez ere baliatzen ziren.

Lehen beste ez bada ere, gaur egun ere ibiltzen dira umeak bertan. «Denbora ona badago, lasaitasuna ematen dizu errekek, presaren zaratak... Leku polita da. Lasaia». Ezkutuan dagoen txokoa da, herritarrek gozatzen dutena.



**ETXEBARRIKO
UDALA**

Peñanekua plaza, 1
94-616 64 32
www.etxebarría.biz

Markina-Xemein



Jasone Aretxabaleta

Markina-Xemeinen jaio eta hazi zen Jasone Aretxabaleta. Zerutxu ikastolan ikasi zuen, garai hartan ia klandestinitatean, eta egunero abentura berri bat zen berarentzat: «Batzuetan fraileen areto batean ematen genituen klaseak, eta beste batzuetan osaba Laurenen garajea». Alde zaharra da Aretxabaletari gehien gustatzen zaion herriko gunea, alde zaharrak baitira herri guztietan iraganeko xarma gordetzen dutenak. Baina oraingo honetan Bizenta Mogel plaza aukeratu du.

Orain dela lau urte ireki zuten parkea udaletxe osteko aparkalekuan, zuhaitz eta eserleku ugari osatuta. Beherako aldean umeek jolasteko gune bat dauka, baina garrantzitsuena parkearen erdian dago: Bizenta Mogelen *Ipuin Ona* liburuko pasarte bat, plaka batean jarrita. Gauez argiak pizten dira atzeko aldean, eta plaka lurrean islatzen da.

Emakumeen omenean

Bizenta Mogel XVIII. mendean jaio zen euskal idazlea izan zen. Urte askotan bizi izan zen Markina-Xemeinen, eta bertan idatzi zuen *Ipuin Ona* XIX. mende hasieran, emakume batek euskaraz idatzitako lehen eleberria. «Guk geure pertsonaiatzat aldarrikatu beharko genuke. Parkeari Bizenta Mogelen izena jartzea sekulako ideia ona izan da, nola-bait geure egiteko modu bat», dio. Horren harira,



Jasone Aretxabaleta
(Kazetaria)

«Parkeari Bizenta Mogelen izena jartzea sekulako ideia ona izan da»

Beste Kaleak izeneko ekimena ekarri du gogora, Iametz Interaktiboa konpainiak duela urte batzuk abiarazitakoa, herri bakoitzean bertako emakume esanguratsuen izenak berreskuratu eta kaleetako izendegietara ekartzea helburu duena. «Guztion esku dago ekimen honi ekarpenak egitea».



MARKINA-XEMEINGO UDALA

Goikoportala, 3
94-616 74 54
Whatsapp: 688 84 49 95
udala@markina-xemein.eus
www.markina-xemein.eus
www.markinaxemeinturismoa.eus

Ziortza-Bolibar

Ziortzako Monasterioa



**Lorea
Zulaika Arriaga**
(Musikaria)

**«Monasterioa da
lekurik politena;
energia
transmititzen du»**

Ziortzako monasterioak ehunka bisitari erakartzen ditu urtero. Ez da harritzekoa Lorea Zulaika Arriagarentzat. Musikariak ere hara bideratzen du pausoa leku ederra eta patxada, bien bila dabilenean. «Monasterioa da lekurik politena; energia transmititzen du».

Momenturen baten abestiak konposatzeko balio izan dio Ziortzan bilatutakoak, baina ez da propio horretara joaten hara. «Idazteko edo irakurtzeko ezezik, besterik gabe egonean egoteko ere lekurik onena da: lasaitzeko leku bat», esan du.

Zarautzen bizi arren, astebukaeretan Ziortza-Bo-

libarrera joan ohi da Zulaika, eta beti dauka bu-ruan, bai monasterioa, bai ingurua. Izan ere, inguru guztia da ederra beretzat.

Santiagoko Bidearen parte

Santiagoko Bideko Kostako Bidea, Gipuzkoa zeharkatu ondoren, Lea-Artibaiko eskualdean sartzen da, eta jatorrizko galtzadaren urratsak jarraituz, erromesak Ziortzaraino heltzen dira, mugarri garrantzitsuenetakora. Dena dela, oraindik eta gehiago gozatu dezakete paraje horietaz, Zulaikak ohartarazi duenez.

Horrela, esperientzia biribiltzeko, Gontzugarai-Gerrikaitzerako bidea hartzea proposatzen du. «Edo, bestela, Ziortzatik gora joanda ezkerretara, Goikoetxebarria baserrirako bidea ere dotorea da», zehaztu du. Hain zuzen ere, oinezkoentzako ibilbidea prestatuta dauka udalak toki horiez gozatzeko, herriko ondareen altxorra behar bezala ezagutzeko apropos-aproposa.



**ZIORTZA-
BOLIBARKO
UDALA**

Domingo Ugartetxea, 3
94-616 57 27
udala@ziortza-bolibar.com
www.ziortza-bolibar.eus
www.simonbolivarmuseoa.com

Aulesti

Kalebarrenetxebarriko zelaia



Julen Antsotegi Uskola

Motxila bete esperientzia bizi izan ditu Julen Antsotegi Uskolak mundu zaba-lean. Oso bidaiazalea izanik, espazio eta abentura ugarirekin egin du topo. Ostera, erbestean ez du lekurik topatu, hau da, ez da toki horietara lotu; «ezleku» izan dira beretzat. Horrenbestez, lokarriak Aulestin baino ez ditu antzeman berak, istorio eta bizipenez beteriko ha- maika txokotan, bertora sustraitzen duten bazter- retan. Eta horietatik bat nabarmendu du berak: Kalebarrenetxebarri alboko zelaia.

Ilunzarrerako bidean dago, eta aitortzen duen arren egun gehiago jotzen duela tontorrera, haren magala da berezia Antsotegirentzat. «Kalebarrene- txebarri baserriaren alboko zelaia aldapatsua da, eta umetan bertan ibiltzen ginen txiribuiltaka, edo txirristaka elurra zegoenean», adierazi du. Gainera, bere sasoiko guztientzat omen da kutxuna, denek lotzen dutelako txikitako bizipoz momentuekin.

Aulestiren ikuspegia

Ume garaiak atzean utzita, ikasketetan murgilduta egon denean leku berera jo izan du aulestiarrak la- saitasun bila. Etxetik hurre egonik, esku-eskura eduki du horretarako aukera. Izan ere, pare-parean herria duela, arnas leku aparta bilatu izan ohi du hantxe, sorterrira begira.



Julen
Antsotegi Uskola
[Antropologoa]

«Kalebarrenetxebarri alboko zelaian ume garaian txiribuiltaka ibiltzen nintzen»

Hain zuzen ere, Aulestiren bista ederrak topatu- ko ditu Antsotegiren urratsei kasu eginez bertarai- no heltzen denak. Eta urrutirago begiratzen bada- ki, ume jostariak irudikatuko ditu aldapan behera txiribuiltaka edo txirristadan.



AULESTIKO
UDALA

Donibane enparantza, 1
94-627 90 06
idazkaria@aulesti.eus
www.aulesti.eus

Munitibar

Zubia



Teresa Reizabal Mallea



**Teresa
Reizabal Mallea**
(Herritarra)

«Nork esan behar zigun gure olgetako lekuan familia bat hil zutenik»

Zubi ingurua da Teresa Reizabal Mallearen-
tzat herriko txokorik kutxunena. Umetako
euren jolas tokia zen hori; leku bizia. Ingu-
ru alai horretan, oster, historia itzal bat
gorde da. Izan ere, nagusitzean jakin zuen bertan
jendea hil zela herria bonbez erasotu zutenean.
«Nork esan behar zigun guri geure olgetako lekuan
ez askoz lehenago familia bat hil zutenik!», dio.

Gernika bezala, Munitibar ere bonbardatu egin
zuen Alemaniako Condor Legioak 1937ko apirila-
ren 26an. Reizabal umea zenean, ordea, «herrian ez
zen ia berba egiten gerra kontuez», eta, horrenbes-

tez, ez zeukaten han gertatutakoaren arrastorik.
Hain zuzen ere herrian jazotakoa ez ahazteko, me-
moriaren lekuak egitasmoa abiatua du Munitibar-
ko Udalak Ahaztuen Oroimena elkartegaz batera,
eta beragaz ibilbide bat osatua dauka. Horren bai-
tan, hilotzak egondako bost leku kokatu eta infor-
mazioa bildu dute paneletan, euretako bat zubia-
ren ondoan, Reizabalen umetako jolas tokian.

Bonba zuloetan lurperatuta

Berriztik ihesean etorritako familia bat harrapatu
zuen 37ko aire erasoaldiak, eta bertan hil ziren, ala-
ba ez, beste guztiak. «Bonben zuloan hilobiratu zi-
tuzten, abadetxe ondoan, gorriak eta nazionalistak
izanda, antza, ez zutelako merezi ezta kanposan-
tuan lurperatzerik ere», azaldu du Reizabalek.

Munitibarko bonbardaketan 25 lagun hil ziren,
eta hainbat lagun zauritu. «Hemen jazotakoa ida-
tziz jaso barik egon da, eta eskerrak sasoiz testigan-
tzak batu eta memoriaren ibilbidea osatu dela».



Herriko plaza, 6
94-616 40 07
idazkaritza@munitibar.org
www.munitibar.org




LEA IBARRA UDAL
MANKOMUNAZGOA

Ellexalde, 1
48289 GIZABURUAGA
tf.-faxes: 94-684 29 82
leaibarra@bizkaia.org

Administrazioa eta arkitektua: 94-684 29 82
Ongizatea: 94-684 29 63
Garapena: 94-684 44 23

www.leaibarra.eus

munitibar-aulesti-gizaburuaga-amoroto-mendexa



MUNITIBAR

- SINDIKATU.**
San pedro kalea • 94-616 57 76
- HERRIKO TABERNA.**
Herriko plaza • 650 920 067
- TXORI**
San pedro kalea • 94-616 40 68
- ASTORKIGANA.**
Berreño auzoa • 94-625 23 56
- GARRO.**
Gerrikaitz auzoa • 94-616 41 36

AULESTI

- UBILLA JATETXEA.**
Aulesti kalea, 4 • 94-627 93 79
- ILUNZAR TABERNA.**
Aulesti kalea, 29
- ATXAGARAI ATERPETXEA.**
Urregarai zelaia • 94-627 90 06
- UBILLA ATERPETXEA.**
Aulesti kalea, 4 • 94-627 93 79

GIZABURUAGA

- HERRIKO TABERNA.**
Ellexalde auzoa • 94-684 45 30
- AKUIOLA.**
Laixer auzoa • 94-684 12 13

AMOROTO

- IBAI-GANE.**
Oleta auzoa • 94-684 13 59
- KLAUDIO JATETXEA.**
Oleta auzoa • 94-684 18 03
- EPERMENDI JATETXEA.**
Oleta auzoa • 94-684 17 62
- HERRIKO TABERNA.**
Ellexalde auzoa • 94-624 35 23
- ALTUENA.**
Ellexalde auzoa • 94-624 30 89

MENDEXA

- KABIA.**
Zelaia auzoa • 677 770 104
- LAPERRI TXIRINGITOA.**
Karraspio hondartza • 653 744 577
- LEAGI JATETXEA.**
Leagi auzoa • 94-684 23 52
- MAHAIGANEKO.**
Zelai auzoa • 666 960 198
- METROKUA TABERNA.**
Karraspio hondartza • 94-684 49 80
- PATXON TABERNA.**
Karraspio hondartza
- ZUBI TABERNA.**
Likona auzoa • 629 421 598
- ITSAS ERTZ.**
Likona auzoa • 94-624 31 77
- ZELAIGANE PENTSIOA.**
Zelai auzoa • 94-624 32 15
- ENDAI KANPINA.** Lekeitio ondarroa errep. 57.8Km • 94-684 24 69
- LEAGI KANPINA.** Lekeitio mendexa errep. 1.5Km • 94-684 23 52
- VILLA ITXASO HOTELA.**
Villa Itxaso aldegi • 606 005 005
- METROKUA HOTELA.**
Karraspio hondartza • 94-684 49 80
- GARAZAR HOTELA.**
Zelai auzoa • 630 739 835



MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA



AULESTI
UDALA



GIZABURUAGA
UDALA



AMOROTO
UDALA



MENDEXA
UDALA

Ispaster

Paisaia kulturala



Garbiñe Saenz de Buruaga
(Ispasterko alkatea)

«Euskal Herriko bertute paisajistiko eta kultural guztien isla gara»

Ispaster paisaia kulturala da. Ez du nabarmen-tzekoa den monumentu edo paraje naturalik; haren baturak egiten du Ispaster berezia. Garbiñe Saenz de Buruagak Otoioiko itsaslabarra gomendatzen du bisitatu beharreko leku gisa. «Euskal Herriko bertute paisajistiko eta kultural guztien isla gara», adierazi du. Artadia, herriaren erdigunea eta auzoen gaineko panoramika ere aipatzen ditu bisitatu beharreko leku gisa.

Saenz de Buruagari sakabanatutako auzoetan sortzen diren espazio kolektiboak asko gustatzen zaizkio, batez ere herriaren erdigune osoa. Auzo horien artean, Zatika, San Martin, Kurtxia, Larrinaga, Arropain edo Solarte daude, besteak beste. Zubieta da Ispasterko kultur ondarerik nabariena. Horrez gain, baserri-aleetako historia kronologiko-

ki kontatzeko gaitasuna du. «Ispasterren harro egon behar gara euskal baserrien historia kontatu ahal izateaz, duela 500 urte jaio zenetik gaur arte, euskal baserrien 0. kilometroa», azaldu du.

Programa berri bat

Udalerriaren balioak nabarmentzeko eta Ispaster turismo aktiboaren eta kulturalaren lehen mailako helmuga izatea lortzeko, esku-hartze programa bat planteatu du udalak. Alberto Santana eta mendi ibilaldietan adituak diren pertsonekin batera, euskal baserrien historian ibilbide bat egitea pentsatu dute, arkitektura estilo guztiak errepasatzeko helburuarekin. Ibilbidea autogidatua izango da, eta hamar kilometroko luzera izango du, lau ordutan egin daitekena. «Bisitatzen gaituztenek, benetako historiaz gozatu ahal izango dute altxor horiek zaintzen jakin duen udalerrri batean». Horrez gain, Ispaster turismo aktiboa praktikatzeko lekua izateko helburuarekin, BI145 Mendi Federazioak homologatutako PR eta BTT ibilbide bat prestatzen ari dira udalerrri osoan zehar.



ISPASTERKO UDALA

Ellexalde auzoa, 9-1. solairua
94-684 40 25/ 94-684 29 99
Faxa: 94-624 34 70
udala@ispaster.eus
www.ispaster.eus



mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak

**6 ZIRKUITU, 23 TIROLINA,
78 ERRONKA ZUHAITZ ARTEAN!**



www.mendexapark.com
Tel. 688856283



info@mendexapark.com

Garraitz irla



Garraitz, parke arkeologikoa

GARRAITZ BISITATZEKO DEKALOGOA

- Uhartearen hegoaldeko iparraldera zeharkatzen du bidezidor batek. Zure segurtasunagatik eta uharteko habitatarekiko errespetuagatik, mantendu bidezidorraren barnean uneoro.
- Kultur eta natur ondarea guztiona da. Goza ezazu. Gorde itzazu haien balore unibertsalak eta saihestu haien biziraupena arriskuan jar dezaketen eragin negatiboak. Babestu Garraitz uhartea. Errespetatu aztarna arkeologikoak, beste pertsona batzuek ere parke arkeologiko honetaz goza dezaten.
- Ez sartu espezie inbaditzaileak eta ez hartu babestutako flora eta fauna, ezta espezie horietatik eratorritako produkturik ere. Ez atera intereseko material geologikorik ere.
- Ez egin surik eta ez bota zigarrorik zorura, itzaltzeko zailak izan daitezkeen suteak eragin baititzakete.
- Mareak gora eta behera egiten du 6 orduro: **ondo planifikatu zure bisita, harrapatuta gerra zaitezke eta.**

Lekeitioko badiaren erdigunean kokatzen da Garraitz edo San Nikolas uhartea. Euskal kostaldeko gune esanguratsua da. Tamainaz txikia izan arren (6,50 hektarea), kultur eta natura ondare aberatsa gordetzen du; horregatik da erreferentzia euskal itsasertzean. Inguru berezi eta baketsu honetan kostaldeko flora eta fauna oso bereziak mantendu dira.

Garraitz irlak hainbat erabilera izan ditu historian, beraz, gertaera historiko horiei lotutako aztarna arkeologikoak gordetzen ditu. Hori dela eta, Lekeitioko Udalak, Atabaka Elkartek eta Aranzadi Zientzia Elkartek hala eskatuta, Eusko Jaurlaritzak Parke Arkeologiko izendatu zuen 2019an. Izendapen horrek, uhartearen balioa berreskuratu, babestu eta balioan jartzea du helburu.

Indusketetan aurkitutako aztarna arkeologikoen artean, nabarmentzekoa da txanpon sorta bat, XIII. eta XV. mende bitartekoak eta jatorri oso desberdinetakoak (Gaztela eta Leongo erresumak, Portugal, Eskozia, Frantzia edo Brabanteko dukerria, besteak beste). Numismatikariak aztertu ondoren, haien osaera, balioa, datazioa eta jatorria ezagutzen dira; ez dakigu, ordea, nola eta zergatik iritsi ziren Lekeitioko irlara.

Historia eta aztarna arkeologikoak

Garraitzen aurkitzen diren aztarnen multzoak bi eremutan banatzen dira: erlijiosoa eta militarra. Erabilera zibilari dagokionez, ospitale eta lazareto gisa erabili zen ere, izurriteak (izurri beltza, adibidez) pairatzen zituzten herritarrak isolatzeko.

Eremu erlijiosoa: Uharteak aztarnategi bat du (XIV-XIX. mendeak). Giza-okupazio baten lehen berriak serorek zaindutako ermita batenak

dira (XV). 1617an frantziskotarren komentu bat sortu zen, 1650 inguruan abandonatu zena.

Eremu militarra: Gotorlekua eta kuartela, bolborategia eta goiko gotorlekua ditu. Gotorleku militarren eraikuntza etengabea izan zen XVI. mendeko gerra anglo-espainiarraz geroztik. Gerra-gertakari bakoitzean berritzen ziren: Espainiak ondorengotza gerra, konbentzioko gerra, gerra napoleonikoak eta gerra karlistak. Horien guztien aztarnak daude, eta nabarmentzekoak dira 1742ko kanoi-bateria eta karlistenak.

Natura, flora eta fauna

Aztarna arkeologikoak gordetzeaz gain, gaur egun, Garraitzi erabilera zientifiko eta dibulgatzaile gehitu zaio, bisita kulturalen eta naturaren behaketari esker. Habitat babestu bateko hegaztiak eta balio handiko natura paisaia aurkitu dezakegu. XIX. mendearen amaieratik kanpoko espezieekin esperimentatu zen, eta espezie horietatik *Pinus pinaster*, *Pinus nigra* eta *Cupressus makrocarpa* ale batzuk geratzen dira.

Uharteak bioaniztasun egoera eta itsasoko klima ezaugarriak ditu; beraz, landare nitrofiloen habitat oso berezia da, hegazti eta mikrofauna espezie askoren babesleku den habitata. Lagundu iezaguzu inguru hau garbi mantentzen, eta errespetatu fauna eta flora eremuak.



lekeitioturismo.eus

TURISMO BULEGOA

Santa Elena Etorbidea, 2 • 94-684 40 17
turismo@lekeitio.eus

TURISMO AKTIBOA

ABENTURA-KIROLA

LEA-ARTIBAI




Aprobetxatu Lea-Artibai eskualdeak eta inguruek eskaintzen dituzten aukera zabalak entretenimendu jasangarrirako. Praktika itzazu abentura-kirolak Bizkaian eta Euskal Herrian zehar. Zatoz lagunekin, bikotekidearekin edo familian, ordu batzuetarako zein hainbat egunetarako. Zatoz paisaia ikaragarriez goatzera, eta aukeratu adin eta maila desberdinetarako prestatuta ditugun ekintzen artean.



 Karraspio hondartza, Mendexa
 leaktibai@gmail.com

Ondarroa

Plaiko musturra



Yolanda Burgoa Zenarruzabeitia
(Turismo teknikari ohia)

«Plaiko musturra arnasmunea da. Itsasoa, hondartzak, kostaldea, erlaxagarria da»

Itsasoari estu-estu lotuta dago Yolanda Burgoa Zenarruzabeitia. Aita eta senarra itsasokoak izanda, kresal eta arrain usainak oroitzapenetan murgiltzen dute. Umetako oroitzapenetan. Gaztetako oroitzapenetan. Gaur egunekoetan ere bai. Uraren zurrumurru lasaia atsegin du, itsasoa nahasita dagoenean sortzen duen zarata atsegin duen bezala.

Ondarroako bere txokorik gustukoenak dira horren adierazgarri. Itsaso ondoan dago lehenengoa, Arrigorri hondartzaren ondoan, portua aurrez aurre duela herriko bandan datozen txalupei bidea

erakusten. Plaiko musturra da. «Arnasmunea da. Itsasoa aurrean, hondartzak, Eskilantxarri, flysch beltza, kosta guztia ikusten duzu, Getariako arratoiak. Kresal usaina, olatuak, zarata,... erlaxagarria da. Beste aldera begiratuz gero, beti daukazu giroa: arraun elkarteko neska-mutilak entrenatzen, txalupak etortzen; atzetik, txoriak, itsasontziak arraina dakarren seinale... Portua. Karroa. Calatrava Zubia- ren atzean, aldapan gora, Alde Zaharra, Arta guztia, Antigua ikusten da, Santa Klararako bidea: «Hor goitik ere bista ikusgarriak daude».

Hondartza egunak

Paseoan beti joaten da bertara. Harritzko banku luzean jesartzen da, paisaia ikusgarriaz gozatzeko: «Udan, iluntzea da momentu ona, eguzkia ezkutatzen hasten denean. Erromantikoa da». Txikitatik du gustukoa. «Erdi parean toallak ipintzen genituen, eskailerak dauden lekuan, eta hantxe egoten ginen lagunak eguzkia hartzen». Gogora datorzkio orduko irudiak: «Alfako langileen umeen udaldiak, Maria Rosak nola ipintzen zituen toloak, nola batzen zituen, kasetak egurrezko aulkiekin, txalopak eguraldi txarrarekin portura ezin sartuta».

Orduan ez bezala, egun, Arbide pasealekua ere ikusten da plaiko musturretik: itsasoak bustitako pasealekua, Bizkaia eta Gipuzkoa batzen dituen.

Ondarroa



Kofradia Zaharra

«Kofradia Zahar ingurua herriaren bihotza bihurtu da urteen joan-etorriarekin»

Artibai errekan gora eginda aurki daiteke Burgoaren bigarren txoko kuttuna, margolariek hainbestetan betikotu duten Zubi Zaharraren ondoan, baseritarrez betetzen zen Berdura Plaza gainean: Kofradia Zaharra. «Arrain salmentak egiten ziren hemen, arraindegia zeuden inguruan, Ramonaneke arraindegia. Penaltiko Felipek baldan eroaten zituen arrainak jatetxeraino. Lekueneke atun errearen usaina ere hartu dezaket, gaur egun Plazagaintik etortzen den atun eta sardina usaina bezala».

Azken urteetan, ospakizunak daudenean, Kofradia Zaharraren bueltan batzen da jendea: «Herriaren bihotza bihurtu da urteen joan-etorriarekin».

Ondarea zaintzen

2000an, Kofradia Zaharra erre egin zen. Bakarrik barruko egiturak iraun zuen. Konponketak eginda, bertan ireki zuten turismo bulegoa. 22-23 urtean, turistikin ezeze, herriko talde guztiekin ere harreman du da Burgoa, ezagutzak eta bizipenak partekatu ditu, ez edozein lekutan, gainera, leku pribilegiatu batean baizik: «Hau toki historikoa da, eta historia eta ondare beteta dago egon ere».

2021eko martxoaz geroztik, esaterako, bertan dago 1887an Maria Cristina Espainiako erreginak oparitutako karezko lehoia. Erreginaren aginduz, hamasei gazte ondarrutar joan ziren Bilbora, errege

faluan Gregorio Zelaia patroiairen gidaritzapean arraun egin, eta erregina eta haren gortea Getxotik Portugaletera eta handik Bilboraino eramateko. Ontziak urrezko lehoi bat zeukan brankan, eta ondarrutarren arraunketaz «mirestuta» geratu zelako egin zien oparia erreginak.

Gabriel Arrizabalaga eta taldekideek dedikazio osoz egindako *Nao Vitoria*-ren erreplika ere ikusi daiteke bertan. 1,35 metroko luzera eta 1,50 metroko garaiera ditu, eta xehetasunik ez zaio falta.

Ondareak duen garrantzia aipatu du: «Ondarea zaindu egin behar da, zenbat gauza joan zaizkigu ez zaintzeagatik? Datozenei utzi behar diegu, gero euren ere zaindu dezaten. Hori izan da gure misioa».

ONDARROAKO UDALA



TURISMO BULEGOA

Erribera, 9 - Kofradia Zaharra

94-683 19 51

turismobulegoa@ondarroa.eus

www.ondarroa.eus

www.udalbarriak.eus

Pertxamendi



Ibai Urrutia



**Ekaitz
Lejarzegi Urizar**
(Mendi lasterkaria)

«Konfinamenduan Pertxamendira igotzea liberazioa zen; asko gozatzen nuen»

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erdian, Ajangiz naturzaleen paradisu da. Eta behin bertan egonda, Pertxamendi mendia bisitatzea gomendatzen du Ekaitz Lejarzegi Urizar mendi lasterkariak. «Ajangizen baso piloa daukagu, baina mendi bakarra, hauxe, eta bertatik biosfera guztia ikusten da», esan du.

Gainera, beretzat esanahi berezikoa ere bada. Izan ere, konfinamendu garaian herriko muge barruan ibili beharra zegoenean, bertara jotzen zuen Lejarzegik. «Hainbeste denbora etxean eman ostean, Pertxamendira igotzea liberazioa zen; asko go-

zatzen nuen momentu hori, han begien aurrean Urdaibai guztia ikustea. Hain zuzen, bertatik pasatzen naizen bakoitzean, sasoi hura gogora etortzen zait», adierazi du.

Tontor erraza

Pertxamendi entrenatzeko leku ere bada ajangiztarrentzat. Hala eta ere, «edozeinek igotzeko modukoa da», 250 metroko altuera dauka eta. Herriko punturik garaiena, erraz heldu ahal da bertaraino mendi lasterketariak dioenez: «Plazatik irtenda bi kilometrora dago mendi punta. Ez hori bakarrik: nahi izanez gero, ibilbide zirkularra egin ahal da».

Erromesek ere esku-eskura daukate, esfortzurik egin barik. «Done Jakue bidea tontorraren azpitik pasatzen da Arratzutik datozela. Bidegurutze batetik bakarrik 100 metrora dago gailurra, eta behin goian, ikuspegi eder horregaz egiten duzu topo; edozeinek gustura hartzeko moduko ustekabea», gogorarazi du.



**AJANGIZKO
UDALA**

Mendieta auzoa, z/g
94-625 19 13

Faxa: 94-625 64 99
ajangizkoudala@ajangiz.eus
www.ajangiz.eus

Zatoz Gernikako Bakearen Museora!

Bakeaz, Giza Eskubideetaz eta Gernikako bonbardaketaz arituko gara. Bizirik irten zirenek beraien bizipenak kontatuko dizkigute. Gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

1998-2023

Apirilaren 3tik
urriaren 15era

Astelehenak
eta igandeak:
10:00-14:30

Asteartetik
larunbatera:
10:00-19:00

Larunbat
arratsalde
guztietan,
sarrera doan.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Foru plaza, 1. Gernika-Lumo
94 627 02 13 / museoa@gernika-lumo.net

www.museodelapaz.org

Nabarniz

Eleizondo frontoia



Kepa Zubizarreta
[Zaldi probalaria]

«Nabarnizko Eleizondo frontoia denetariko erabili daiteke, ez bakarrik pilotarako»

Landagunea da Nabarnizko irudirik ohikoena, zelai berde zabalak, paraje ikusgarriak, animaliak, ibilaldiak egiteko bideak... baina eguraldiak laguntzen ez duenean, herriko Eleizondo frontoia izaten da askorentzat irtenbiderik onena. Bertan ere, «lasaitasuna» aurkitu daiteke. Badaude pilotaren hotsak lasaitzen dituztenak ere.

Herrigunearen erdialdean, ezin dezake kokaleku hoberik izan: «Frontoi handia da, denetarako erabili daitekeena, ez bakarrik pilotako kirolentzat, baita saskibaloirako, futbolerako edota herriko kiroletarako ere». Zubizarretak Nabarniz eta Nabar-

nizko Jatetxearen izena eramaten du Euskal Herriko txoko guztietara zaldi-mando proben eskutik, ondo eraman ere, gainera, garaipenak lortuz. Frontoia du, hain zuzen ere, zaldiak entrenatzeko lekue-tako bat.

Elkargunea

Baina hiru horma handi eta luze baino askoz gehiago da frontoia: herritarrentzako elkargunea da. «Gaztetatik gogoko izan dut euskal pilota eta, gaur egun, astean bi aldiz elkartzen gara lagunak kirola egiteko». Gainera, erabiltzaileek asko eskertzen dute bere erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna, zabalik eta libre egoten da normalean. Gainera, argiak pizteko aukera du, eguzkiak alde egiten duenean jokatzeko aukera emanez. Hasteko, argi gutxi nahi izanez gero, gehiago beharrezkoa ez delako, ez da ordaindu behar, baina argiteria guztia piztu nahi dutenek 2 euro bakarrik ordaindu behar dituzte frontoiaz gozatu ahal izateko.



**NABARNIZKO
UDALA**

Ellexalde auzoa, 2
94-625 50 77
Faxa: 94-625 65 12
udala@nabarniz.eus
www.nabarniz.eus



Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94-625 19 30

www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs

EUSKAL SOUVENIRS

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*

auka
bidaiak


CIE: 2260

Fray Martin de Murua, 29
GERNIKA-LUMO

94-625 74 14 • 688 68 63 45
auka@auka.eu



Triñe auzoa



Jane Eyre Urkieta
(Bizkaiko BBNNetako
Euzko Abertzaleak
taldeko batzarkidea)

**«Arnas eta bake bila jo-
ateko leku ezin
hobea da»**

Busturialdeko txoko ezkutu askotatik ikusten da Urdaibaiko itsasadarra, eta horietako bat da Foruko Triñe auzoa. Jane Eyre Urkietak esan bezala, guztiz lasaia, eta, batez ere, bakea transmititzen duen inguru bat da, «leku ederra Urdaibaiko bihotz-bihotzean». Begiratoki liluragarria da, bertakoa zein bisitaria goxo hartzen duena.

Forua leku eta txoko berezi askorekin osatuta dago, baina bat aukeratzekotan, zalantzarik gabe, Triñe eta San Gregorio basilizaren ingurua aukeratu du politikariak. Forutarrak sarritan joaten dira bertara: «Bertatik Urdaibaiko itsasadarra bete-betean ikus daiteke eta, gainera, marearen arabera paisaia asko aldatzen da». Eta, adibidez, egun gora-beheratsuen ostean, iluntze partean arnas eta bake

bila joateko leku ezin hobea dela azpimarratu du. Asko dira herritarrek bertan bizi izan dituzten momentuak, eta Urkietak, batez ere, «barru-barruan gordetzen» ditu sangregorioetan Foruko Urdaidai Dantza Taldeko txikitxoenen eskutik bertan egin izan diren eta egiten jarraitzen duten dantza saio eta erromeriak.


Balio natural eta aberastasun paisajistikoari lotuta, forutarren ondarea den San Gregorioko basilizak osatzen du Triñeko txoko berezi hau. Baselizak txikia, sinplea, baina txikitasunean ederra da. Bertan gordetzen da Gernikako Bonbardaketan erretzen San Juaneko elizaren erretaula. «Bertan egon zen erromatar garaiko aldea, eta guda karlistetan babesleku funtzioa izan zuen. Gure herriaren historiako garai desberdinetan, belaunaldi desberdinentzat oso garrantzitsua izan da inguru hori».

Forutarrek zein inguruko herritarrek ondo eza gutzen duten auzoa da Triñe, eta denek balioan jartzen dituzte bere ezaugarriak: «Bere horretan mantentzeko ahalegina egin behar dugu, inguruarekiko errespetuz daukagun altxorra, altxor izaten jarraitu eta guztiok disfrutatu ahal izateko».



**FORUKO
UDALA**

Elelalde auzoa, 1
94-625 51 16
idazkaritza.forua@bizkaia.org
www.forua.net



Ezagutu URDAIBAI gure bisita gidatuen bidez

Bisita historiko eta
kulturalak eskola,
enpresa, familia eta
kuadrillentzat
• Tourrak furgonetan



Urdaibai Experience & Travel-en,
inguruarekin, bertoko ekonomiarekin
eta lekuko jendearekin errespetutsua
den turismo mota baten sinisten dugu.
Bidaia jasagarrien aldeko ekimenak
sustatzera konprometitzen gara,
ingurumena, bertoko merkataritza,
kultura eta ohiturak sustatuz.

URDAIBAI experience

GERNIKA * ANDRAMARI KALEA

94-466 98 04
622 01 71 75

aupa@urdaibaixperience.com

www.urdaibaixperience.eus

Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia
bikainak uzten dizkiguten garrantzia
handiko hainbat elementu geologiko
ditugu, eta hauek osatzen duten herrien
historiaz hitz egiten digute.

**Oinez edo itsasontziz,
animatuko zara horiek aurkitzera?**
Oka ibaiaren estuarioaren ezkeraldetik
eskuineraino, Gernikatik igaroz,
Euskal Herriko geodibertsitate
bereizgarrienaz betetako barnealdea
eta kostaldea dugu: flysch-ak, diapiroak,
dúnak, harrobiak, fosilak eta arroak.
Zeuk erabaki!

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa
da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia
egitean datza naturan murgilduta.
Oraintxe bertan, aktibitate hauek
**Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten
ditugu.** Bisitan zehar, ingurune
elementu naturalak behatzen dira;
isiltasuna eta soinu naturalak gozatu
ahal izango dituzu. Basoen eraginak
eragin zuzena du pertsonen ongizatean.
Begiratu nahi al duzu?



EKOBIIDEAK

Kontaktua:

666 85 77 61
688 62 72 42

ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com




Ekobideak Bizkaiko kooperatiba
txikia da, Geoturismoan eta
Ingurumen Hezkuntzan diharduena.
Geologo adituak gara ondare
geologikoaren gidaritzan eta
interpretazioan; Urdaibaiko
biosfera erreserbak eta
euskal kostaldeko geoparkeak
ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaien
baso bainuen helmuga turistikorako
ziurtagiri gidak izateko prestatuta
gaude ere.

Geoturismoa eta
Ingurumen
Hezkuntza...
hitzak eta zeozer
gehiago!

Murueta

Eleizalde Barri frontoia



Olaia Zabalondo Domínguez



**Iker Aranburu
Muniategi**
(Pilotari ohia
eta abeslaria)

**«Umetatik, frontoian
bizi izan ditut
momenturik
berezienak»**

Muruetako erdigunean, Kanpantxua auzoan dago Eleizalde Barri frontoia, Andra Mariaren Jaiotza elizaren ondo-ondoan, udaletxearen eta herriko plazaren ondoan; oraintsu zabaldu berri dute, gainera, eraberritze lanak egin ostean.

Aurpegi berria dauka frontoiak, eta mende baldetik zarratu egin dute. Hala, ez dira eguraldi txarren menpe izango. Izan ere, kirol ekitaldiak antolatzeaz gain, beste hainbeste ekintza antolatzeko erabiltzen dute muruetarrek frontoia, herritarrak batzeko gune bat da. Modu horretara sentitzen du

frontoia Iker Aranburu Muniategi herriko pilotari ohi eta abeslariak, «batzeko gune» modura.

«Umetatik, frontoian bizi izan ditut momenturik berezienak, lagunen eta herritarren artean». Pilota partiduak zein herri afari zein bazkariak datorzkie burura: «Oroitzapen asko eta politak dauzkat frontoian». Frontoi zaharreko inaugurazioko lehenengo esku pilota partidua jokatu zuen Aranburuk, Garfegaz debutatu aurretik. Eraberritze lanak egin osteko berrinaugurazio ekitaldian, berriz, ohorezko sakea egiteko ardura izan zuen. «Askok gustatu zait ni kontuan izatea, nire pertsonari garrantzia eman diote, eta poztekoa da. Berrirori ere frontoi giroan sartzeko gogoak daukat, baina ez dut astirik izan. Kantxan egoteko prestatuta egon beharra dago». Herriko Andra Mari jaietan, frontoi berrituan partiduren bat jokatzea gustatuko litzaioke. Egindako lanekin oso pozik dago, eskatzen zituztenak orain badaudelako, aldagelak eskura, esate baterako.



**MURUETAKO
UDALA**

Kanpantxua, 3
94-625 24 51
udala.murueta@bizkaia.org
www.murueta.eus

Kamiñoko

erretegia • jatetxea

Gernika-Bermeo errepidea
94-625 51 46 MURUETA
kaminokomotox.com



Urdaibai bihotzean kokatuta dago Kamiñoko jatetxea. 2012an Motxok eta bere talde profesionalak ireki zituzten berriro jatetxeko ateak. Haragietan, arrainetan eta euskal sukaldaritza tradizionalen espezializatuta gaude. Lau jangela zabal ditugu 700 lagunentzako lekuarekin.



AMUNATEGI TXAKOLINA

1812 urteaz geroztik



17.000 metro karratutako mahastia Busturiko San Bartolome auzoan.



JAUN ZURIA TXAKOLINA:
Kondairadun txakolina. Hori lastoa, erreflexu berdexkak dituena. Bizia sudurrean, konplexua, lore- eta fruta-notekin. Azidotasun orekatua eta amaiera atsegina.

- **Zuzeneko salmenta:**
3 eta 6 botilako kutxetan.

DASTAKETA, SALMENTA ETA BISITA GIDATUAK.

Kontaktua: **685 73 73 98** (Anton)
anton.aranburu@gmail.com



www.amunategi.com

Artzubi zubia



Alex Uriarte Atxikallende



**Aitzol
Onaindia Alberdi**
[Mexikon bizi
izandako ingeniaria]

**«Artzubi nahitaezko
geltokia izan da
etxera itzuli naizenero;
hausnarketarako lekua da»**

Oraindik zutik dirauten XVI. mendeko zubirik berezienetakoa da Artzubi. Arratzuko San Tomas elizatik hurre kokatuta, Golako errekaaren gaineko pasabide lana egiten du, eta Gerrikaizko uria Gernikakoarekin lotzeko eraiki zuten. «Lasaitasuna eta bakea» transmititzen dizkio txoko horrek Aitzol Onaindia Alberdi arratzuarrari. Mexikon lanean egondakoarentzat leku berezia da: «Artzubi nahitaezko geltokia izan da etxera itzuli naizenero».

Umezaroan ditu leku horregaz loturiko lehen gomotak: «Aitonagaz bainua hartzera joaten nintzen,

eremu horretatik hasita eta Loiola auzoraino, putzu ugari baitaude». Urteen joanagaz, baina, zubia pasabide bihurtu zitzaion inguru horretatik bizikletagaz ziztu bizian ibiltzen zenean. Leku hori betidanik ezagutu arren, Onaindiak uste du «oso ondo» eutsi diola denboraren iragateari: «Erreka bera eta inguruko basoa bikain gorde dira, espazio natural paregabea eta autoktonoa da; hori bai, eliza ingurutik zubirako irisgarritasuna dezente hobetu dute, eta informazio panel bat ere ipini dute, Donejakue Bidean bertatik pasatzen diren erromesek eremu horren berri izan dezaten».

Inguruko haltzek, hurritzek, haritzek edota lizarrek hainbat sekretu gordetzen dituzte. Horietako bat Artzubiren mugarri izaera da: zubi erdiko harlauzak Arratzu eta Mendata bereizten ditu. Muga fisikoez harago, buruarenak askatzeko baliatzen du Onaindiak: «Hausnarketarako eta nork bere buruarekin bakarrik egiteko txoko egokia da; esku-eskura dago, baina, era berean, oso aldenduta».



ARRATZUKO UDALA

Loiola auzoa, 2
94-625 68 84
udala.arratzu@bizkaia.org
www.arratzu.eus
www.turismoarratzu.eus



ARROLAKO
LAGUNE

ARROLAKO
OPPIDUM-AREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA

IGANDE GUZTIETAN ZABALIK
10:00-14:00 ARRATZU
Sarrera doan

APIRILAK
16
igandea

BISITA GIDATU
BEREZIA OINEZ
ARROLAKO
OPPIDUM-ERA

9:00h ARRATZU
PREZIOA: 15€

AURRETIZKO ERRESERBA
634 243 762

Bizkaia
ARRATZU
Visit
Urdaibai



Ogoñope
SURF IKASTAROAK
LAGAKO HONDARTZA

Surf taldea
1987tik

Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€
Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com
664579954

Gautegiz Arteaga

San Lorentzo ermitaren ingurua



**Aitor Goikoetxea
Sarrikolea**
(Herritarra)

«Lasaitasunean, iluntzeez gozatzeko lekua da»

Paisaia irekia, lasaia eta intimista duen udalerria da Gautegiz Arteaga. Landa auzoak ditu, baita ondare naturalaren parte den artadi kantauriarrez osatutako basoa eta ekosistemaren aniztasuna batzen duen padura ere. Herriko paisai eder horretan barrena, hegaztien kantuak isiltasuna apurtzen du San Lorentzo ermitaren inguruan, paduraren begiratoki paregabea.

«Leku lasaia da, gozatzeko gunea», dio Aitor Goikoetxea udalerriko bizilagunak. Ohiko zurrumbilatik urruntzeko asmoz, San Lorentzo ermitaren ingurura gerturatzen da lagunekin, «lasai egotera» eta

barbakoak egitera: «Bertara joaten gara udan, lasai egoteko asmoz; izan ere, ez dago zaratarik eta ez dabil jende askorik gune honetan. Gustura egoten gara». Inguru horretaz edonoiz gozatu daitekeen arren, iluntzeetan sortzen den klima nabarmendu du herritarrek, «sekulakoak» direlako ordu horietan San Lorentzotik dauden bistak: «Dena ikusten da: padurak, mendiak zein eguzkia mendien artetik zelan sartzen den. Lasaitasunean, iluntzeez gozatzeko lekua da».

Herritarrek «ondo» ezagutzen duten lekua dela dio, San Lorentzo jaiak ospatzen direlako bertan. «Bazkarian, erromerian zein herriko dantza taldekoen ikuskizunean batzen gara», azaldu du.

Begiratoki ezin hobea izateaz gain, leku historikoa ere bada. Isla Bekoa auzoan aurki daitekeen San Lorentzo Baseliza XVI. mendeko ermita xumea da, bere hormetako batean erromaniko aurreko leiho bat gordetzen duena; X. mendearen erdialdetik XI. mendearen erdialdera bitartean datatuta dago.


GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA



Herriko Enparantza, 1
94-625 29 53
udala@gautegizarteaga.eus
www.turismogauteagizarteaga.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

ZURE ZAIN GAITUZU



inspiratu
zaitez



EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta
masaje terapia

LORATEGIA

Lorategi zoragarria
itsasora begira

NATURA

Naturazaleentzat
ihesaldia egiteko
toki paregabea



Mundakako
itsasadarraren
bihotzean



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19 · SUKARRIETA
(sarbidea, Gautegiz-Arteagatik)
<https://casarural-kanala.com/>
casaruralkanala@gmail.com
666 68 08 01/ 618 77 43 98




Mundaka - Laida - Sukarrieta FERRYA

IZKIRA URDAIBAI

www.izkiraurdaibai.com

· 633 33 12 30



BISITA MOTAK

Norbanakoak: Parkeko sarri-eran azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaio-tzak, espezie berriak...] Ibilbi-dean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel in-formatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik anto-latutako bisitak dira egokie-nak [euskaraz eta gaztelaniaz]. Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri oro azaltzen jo-ango da gidaria. Hark zen-bait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, tal-dearen adinari egokitu-ta [haur zein nerabeak]. Anima-liekin kontaktu zuzena eduki-tzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun oso-koak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Neguko ordutegia (iraila-ren 1etik ekainaren 30era):

Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara [15:00etan irte-teko]. Larunba-tak, igandeak eta jaiegunak: 11:00-17:00 [18:00etan irte-teko].

Udako ordutegia (uztaila-ren 1etik abuztuaren 31ra):

Egun guztietan 11:00etatik 18:00etara [9:00etan irte-teko].

PREZIOAK

Norbanakoak:

Helduak 9 euro eta umeak 5.

Taldeak: Bisita gidatu-erako erreserba egin behar da beti. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, gi-daria dohainik izango da, eta gutxiagokoa bada, taldeko 35 euro ordaindu beharko dira.



Basondo, basafaunaren babesleku

Basurdeak, orkatzak, oreinak, azeriak, basakatuak... Inguruko anima-lia ezagunak zein gaur egun Euskal Herrian desagertuta daudenak biltzen dira Basondon. Bisitan hurbiletik behatu ahal izango dituzue antzina gure basoetako biztanleak ziren beste espezie batzuk ere: otsoa, katamotzak edo bisonteak.

Ez da zoologiko bat, basafaunaren babesleku bat baizik. Animalia gehie-nak Berreskuratze Zentroetatik etorritakoak dira. Ia denek sendaezinak di-ren kalte batzuk dituzte eta, beraz, ezinezkoa da naturara berrirori bertsartzea.

Horrez guztiaz gain, Basondon animalien zainketa eta sentsibilizazio zein ingurumen hezkuntzarekin lotutako lanak ere egiten dituzte.

Animaliez eta naturaz gozatzeko leku aproposa da faunaren aterpe hau. Bisitariei animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen diete eta, esaterako, bisitetan taldekideen adinaren arabera naturari buruzko azal-penak ematen dituzte.



BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi

94-625 44 36

info@basondo.com

www.basondo.com

URDAIBAI EZAGUTZEKO BISITA GIDATUAK

Urte asko daramatzagu leku zoragarri hau sakonki ikertzen, bere **sekretuak** ezagutzen dituzten pertsonengandik ikasten, bere herrietako **tradizioak** bizitzen, inguru bakoitzeko **istorio eta kondairak** entzuten. Orain, lehen pertsonan kontatu nahi dizuegu, gure **bisita gidatuen** bidez.

URDAIBAI DESKUBRITZERA ZATOZ GUREKIN?



Bermeo
arrantzale herri baten
izaera



Mundaka
bikingoek, nobleek eta
surflariak zeharkaturiko
olatuak



Urdaibai
glamourrezko
filmen eszenatokia



Atxarre
urdaibaiko begiratokia

Gehiago ezagutu gure webgunean: www.urdailife.com
reservas@urdailife.com - 649 003 201

**TALDEENTZAKO
PREZIO
BEREZIA**





urdaibai

Turismo aktiboa eta abentura



urlekeitio

Turismo aktiboa eta abentura



ABENTURAZ ETA NATURAZ GOZATZEKO 11 AUKERA



IKASTETXE TALDEENTZAT EGITARAU BEREZIAK



Ur Urdaibai

Arketa auzoa, z/g (48311 IBARRANGELU)

946 276 661 / 688 635 190

www.urdaibai.com / info@urdaibai.com

Ur Lekeitio

Ezpeleta, 12 (48280 LEKEITIO)

946 243 586

www.urlekeitio.com / info@urlekeitio.com